

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Maiatzaren 1ean amuarraina eta izokina arrantzatzeko denboraldia hasiko da Nafarroan

Salmonidoen Goiko Eremuko amuarrainen populazioa bikoiztu egin da azken hiru kanpainetako debekualdiaren ostean

Viernes, 29 de abril de 2011

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak jakinarazitakoaren arabera, datorren igandean, maiatzak 1, [amuarraina eta izokina arrantzatzeko denboraldia hasiko da Nafarroan](#).

Amuarrainaren denboraldiak ekainaren 30era arte iraungo du eta egunero arrantzatu ahal izango da, jaiegun ez diren astearteetan izan ezik. Izokinaren kasuan, denboraldia uztailaren 17ra arte luzatuko da, jaiegun ez diren asteartan izan ezik edo 39. alea harrapatzen den arte.

Amuarraina hiru urteko debekualdiaren ostean arrantzatu daiteke. Hiru urte hauetan, 2007an oso urrituta zegoen populazioa berreskuratzeko lan egin da. Abian jarritako berreskuratze-neurriei eta meteorologia-baldintza mesedegarriari esker, amuarrainen populazioa bikoiztu egin da. 2007an hektarea bakoitzeko 1.635 amuarrain egotetik 2010ean hektarea bakoitzeko 3.347 amuarrain egotera igaro da. Populazioaren maila "arrunta" dela jotzen da, populazio-dentsitatea hektarea bakoitzeko 2.000 eta 4.000 ale bitartekoa denean.

Hala ere, amuarrain-populazioaren berreskuratzea ez da berdina izan arro guztietan. Hori dela eta, denboraldi honetako berrikuntza nagusia Arrantzatzeko Sistema Jasangarria ezartzea da. Horren bidez arrantza-baimenak ematen dira inguru bakoitzean dagoen populazioaren arabera. Baimenak joan den apirilaren 4an hasi ziren banatzen eta gaur egun 7.617 banatu dira. Indarreko arrantza-lizentzia duten arrantzale guztiek baimenak eska ditzakete

www.permisopesca.navarra.es web orrian. Web orri horretan kanpainari buruzko informazio guztia aurki daiteke.

Izokinari dagokionez, denboraldi honetan Bidasoa ibaiaren Nafarroako ibilguan 39 ale arrantzatu ahal izango dira. Aurreko kanpainarekin alderatuta ia bikoitza dira (2010ean 20 ale arrantzatzeko baimena eman zuten). Zifra hori Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Beran duen zenbaketa-estazioan zenbatzen den izokin-populazioaren arabera ezartzen da. Izokina arrantzatzeko ez da arrantza-lizentziaz bestelako baimenik behar.

Hona hemen aurtengo arrantza-kanpainaren ezaugarriak:

Amuarraina

Datak

: Maiatzaren 1etik ekainaren 30era, jaiegun ez diren astearteetan izan ezik.

Arteak

: Kanabera bakarra arrantzale bakoitzeko.

Baimena

: Arrantzale eta egun bakoitzeko baimen berezia behar da, indarreko arrantza-lizentzia dutenentzat.

Neurriak

: Bigarren mailako ibilguetan 20 eta 35 zentimetro bitarteko amuarrainak arrantzatu daitezke, eta ibigu nagusietan, 23 eta 35 zentimetro bitarteko amuarrainak.

Kupoa

: Arrantzale bakoitzak egunean 3 izokin arrantzatu ditzake.

Arrantza-inguruak

: Salmonidoen Goiko Eremuko arroak: Arga/Ultzama, Arakil /Larraun, Baztan/Bidasoa, Ega/Urederra, Irati/Erro eta Oria/Urumea. Eska/Salazar arroan ezin izango da amuarrainik arrantzatu, izokinaren populazio-dentsitateak ez baitu arrantza onartzeko besteko maila egokirik.

Izokina

Datak

: Maiatzaren 1etik uztailaren 17ra, jaiegun ez diren astearteetan izan ezik, edo 39. alea arrantzatzen denean.

Arteak

: Kanabera bakarra arrantzale bakoitzeko.

Baimena

: Ez da baimen berezirik behar.

Neurriak

: Ibaitek 40 zentimetrotik gorako izokinak atera daitezke.

Kupoa

: Arrantzale bakoitzak egunean izokin 1 atera dezake ibaitik.

Arrantza-inguruak

: Bidasoa ibaian, Berako Fundizioen presatik Nafarroako mugarainoko tartean.

Beste espezie batzuk

Salmonidoen Eremu Mistoan, maiatzaren 1etik uztailaren 17ra, beste espezie batzuk arrantzatu daitezke, hala nola *kolaka*, *hondoetako korrokoia*, *platuxa* eta *itsas amuarraina*.

Ez dago inolako debekurik *hondoetako korrokoia*ren eta *platuxa latzaren* harrapaketa kopuruaren gainean. *Kolakaren* kasuan, arrantzale eta eguneko, ale bat arrantzatu daiteke, eta debekatuta dago 30 zentimetro baino gutxiagoko kolakak edukitzea.

Itsas amuarrainaren

arrantzaldia maiatzaren 1ean irekiko da eta 25. arraina harrapatzen den egunean edo izokinaren arrantzaldia bukatzen denean itxiko da. Arrantzale eta egun bakoitzeko ale bat arrantzatu daiteke, 35 eta 55